itzulpena: Leire Bilbao

Nijole Miliauskaite

Munduko
Poesia
Kaierak

Nijole Miliauskaite

itzulpena: Leire Bilbao

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© Nijole Miliauskaite
© itzulpenarena: Leire Bilbao
© edizio honena: Susa

2016ko urria

Munduko Poesia Kaierak
bildumaren zuzendaria: Beñat Sarasola
http://kaierak.com

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.eus
Webgunea: http://susa-literatura.eus

Askori, ziur aski, ez zaizkie ezagunak egingo Nijole Miliauskaiteren izen-abizenak. Lituaniarra eta emakume izateak izango du horretan, segurki, zerikusirik. Izan ere, eskas dugu inguruan poesia lituaniar itzulirik, eta Europa Ekialdea, munduko beste hainbat zoko bezalaxe, gure irakurgaietatik aparteegi uzten dugu maiz. Gainera, Vytautas Bloze poeta laudatuarekin ezkonduta egoteak ez zion sobera lagundu bere lana hedatzen.

Nolanahi den, Lituaniako kritikak zein poesian adituek estimu handitan duten poeta dugu Miliauskaite. Horren erakusle dira 1996an jasotako Idazlearen Elkartearen saria eta 2000ko Lituaniako Sari Nazionala. Keturvalakiain jaio zen 1950ean eta Lituaniako Literaturan lizentziatu ondoren, Bloze ezagutu zuen, bizitza markatuko zion harremana, hala senarra KGB-k pertsekutatu zuelako, nola harekin izandako maitasun harreman gatazkatsuagatik. Tartean pertsekuzio politiko hori kausa, nahiko lan eta neke izan zuen bizia aurrera ateratzen; panpina eta arropak josten zituen, eta sendabelarrak poteratzen turistei merkatuetan saltzeko.

Hain justu landare-belarren joritasuna da Miliauskaiteren poesian ageri den ezaugarri agerietako bat, adjektiboen erabilera apartekoarekin ontzen duena. Naturaren deskribapen zehatzetan oinarritzen baita zentzumenen mundu zabala (koloreak, soinuak, argia, mugimendua) poesiaren neurrira —gehienetan laburra— ekartzeko. Haren idazkera minimalistatzat jotzen da, lerro zoli gutxi batzuen bidez —gehienetan izenburu gabeak— unibertso oso bat osatzeko gai delako. Soberakinik gabeko poesia da Miliauskaiterena, hitzen ekonomia bilatzen duena soseguz, eta hain justu horrelaxe lortzen duena gizakiaren izatearen sakonera iristea. Besteak beste horregatik, Wislawa Szymborskaren lanarekin erkatu izan da berea.

Lehen lana 1984an eman zuen argitara, *Ursula S.-ren potreta* izenarekin, eta haren poesiagintzan errepikariak izango ziren hainbat elementu topatzen ahal dira jada. Horien artean dago pertsonaien —emakumezkoak maizenik— erretratu poetikoak, zeinak pertsona gramatikalak konbinatzen ehundu ohi dituen. Horrekin batera, etxearen eta bizitokiaren inguruko hausnarketa oso bat ere ageri zaigu, etxegabe edo zurtz izatearena. Egiazki, Lituaniako poesiaren gai nagusienetakoa dugu hori, urte luzetako ego-

era nazional mendekoari erantzuten diona, baina Miliauskaiteren kasuan oso dimentsio pertsonalean zehazten da; haren poesian ez baitago ez izen larriz idatziriko naziorik ez epikarik. Etxearen ildo horrek, bada, Arestiren zenbait lerro ekartzen ahal dizkigu gogora jakina, baina baita, nazio dimentsio nazionaletik harago, Virginia Woolfen leku propio baten premia, areago jakinik Blozeren alboan ez zuela ugari izan espaziorik berarenik. Mundu androzentriko batean emakume izatearen aje eta mendekotasunei ere leku egin baitzien: “ez dizute pauso bakar bat ere bakarrik ematen utziko”.

Istanten deskripzio soilak dira haren aleetarik ugari, istorio laburtxoak kasik (*neskato hitz-motela naiz berriz*) zenbaitek Txinako poesia klasikoarekin erkatu duten ezaugarria eta irudi soil batera mugatzen direnak sarri (*gaueko tximeleta bat*). Errealitatearen epifaniak bilatuko balitu bezala idazten zuen, arruntak izanagatik, ustez ikusgarriak ez izan arren, Miliauskaitek berezi eta poetiko jotzen (edo bihurtzen) zituen momentuak. Horrek ez du esan nahi, baina, haren poemetan ageri dena beti denik eroso eta samurra. Gizakiaren eta munduaren krudelkeria ere suma baitezakegu; eta bakardadea, bakardade latz

eta gordinena: “ametsak ditut bakarrik / eta neure izatea”.

BEÑAT SARASOLA

[haurtzaroko ikara guztiak]

haurtzaro ikara guztiak
izu-amets guztiak
neskatoaren amesgaiztoak bakardadean
betiko erruduntasun konplexua

ilunabarreko argitan aurpegiaren zurbila
nostalgia definiezina

nork salbatuko zaitu?
nork askatuko?

neskato herabeak
ezkutaketan jolasten jarraitzen du
arimaren azken ganberan
lapa-belar ispilu dagerrotipo artean
haizean

ezin dut kanpora bota

zeinen hotzak
haren esku meheak
zure ahurrean maitea

eta ez daki ezer esaten

[ume aurpegi]

ume aurpegi
fidakorra
begirada baten zelatan

arima fidakorra
berea moduko arima
mugagabe bat
bilatzeko grinatsu

gorputz itsu fidakorra
iluntasunean itsumustuka
talka eginez
hormen hodeien munduaren kontra

luza iezaiozu eskua
gida ezazu
argiz beteriko
paisaia batera

non aurkituko dugun
aberria
bakarra betierekoa

[ez daki ezer]

ez daki ezer
ezer ez du ulertzen
bere baitan guztiz murgilduta
ahotsak entzuten ditu
behe-lainoz beteriko bere ariman

bat-batean pozak hartzen du
hats epela bezala
tristura gozo adierazezina
ze ederra den
triste eta zain egotea

oraindik hazten doan gorputzaren egonezina

bakarrik egon nahiko luke
amaren trajeak probatzen dabil
bata bestearengatik aldatzen ditu
eldarnio batean
izenen zerrendak errepasatzen ditu ea baten batek
definitzen duen

liburuetan berea izan zitekeen biografia baten bila
ari da

aurpegiz zatar samarra, zakarra
kristalezko puxikaz liluratua,
ispilua, itsasoak itzulitako
flotagailua
nahiko lituzke
deskubritu
bere zoria
bizitzan bere egitekoa
zure aurpegia

bere sekretua da

[hamabi urte nituen]

hamabi urte nituen
Rochester jauna ezagutu nuenean
neguko arratsalde hartan
ni, sustrairik gabeko
umezurztegiko neska herabea

ez dira nireak landa hauek
ezta ere baratzea sabai altuko egongelak
korridore labirintiko ilunak eskailera kiribilak
eta hotz iraunkor hau

sorbalda meheotara itsatsita dudan
soineko nabar higatu hau ere ez da nirea
amantal beltza bezala

ametsak ditut bakarrik
eta neure izatea

[begiak jaisten dituzu lotsaturik]

begiak jaisten dituzu lotsaturik
eta ez dakizu besoak non jarri
makilatxoak bezala luzeegiak argalegiak,
bularra ile-korda lodi, tolestura eta pleguen azpian
ezkutatzen duzu

burua,
ezki zahar hanpatuen
etorbidean
altzoa, lore horiz
beterik, ze xarma duten
horma hauek
uda aspaldi desagertu honetan:
zain-belar bizi mugagabe bat bezala
hazten doan arima
sukartuarentzat

zelako pozarekin kenduko nukeen
babes-etxeko uniforme ahitua
deabru azalez, iztupaz,

txiroentzat gordetako oihalik gogorrenaz egina
ezin konta ahala neskatok jantzia
nik oinordetzan hartu aurretik

txiki geratu zait soineko marguldu hura
aire itogarriz eta sukaldeko keaz,
eskuak jaten dizkizun lixibaz blaitua, ukondoetan
adabakitua,
hautsi ezina
bere atzaparretatik askatzen ez zaituen babes-etxea
bezala
azala desjosten dizuna

gorde eginen dut
kutxaren azpialde ilunenean
ezkutuan irakurritako
liburu zaharren azpian
ganbara ilun itogarrian
estalki pisutsuaren azpian ehortziko dut
burdineriaz

Otsokumea

Paseoan atera zuten, prozesio
luzea baratzean barrena. Euri-zirina.
Oin sorgortuak, hotzak zartatutako eskuak.

Ilarako azkena, arrastaka,
otsokumea
larruazala ardi-ilez betea, lapa-belarrez korapilatua
begi handi gosetuak.

Blaituta,
lurrerantz makurtzen dira, harri-koskor
eta udazkeneko orbel gorrixkak biltzen
babes-etxeko ume
bidean abandonatuak.

Orbaina

Haurtzaroa bizkarrean daramazu
beldur begi handiekin.
Alderrai dabilen zakurra jarraika duzu.
Horrela joango zinen zu
eskutik helduta.

Etxe bat
izango bazenu…! Jaitsi ezazu neskato hori
lasaitu ezazu, esaiozu: goazen
etxera. Baina aurpegia estaltzen duzu,
murmurikatuz: sendaezina da
gure gaixotasuna.

Zu soilik
zara etxera eraman nazakeen
bakarra.

[ez zara ispilu bat besterik]

ez zara ispilu bat besterik
landa eta zelaietatik
bizikletaz ekarritako loreak eta
egunak islatzen

bata bestearen atzetik
urtaroak, lakutik
azaltzen dira eliza gorria, jendea, banderak
Niemenen haragitzea

neska gazte baten
ameskeriak,
bere aurpegia, ahotsa,
bere altzoan deskantsatzen
adarbakarraren buru zuria

bizitza sekretu bat
ezkutatzen duen ispilua

hilobian aurkitutako
ispilu txiki belztua

[norena da aurpegi hori?]

norena da aurpegi hori?
ispiluek islatzen dutena?
nondik argi hori?

izan nintzen neskaren
begiak eta ezpainak geratzen dira bakarrik

hain segaila, ahula
astiro osatzen zena

gauak kendu dio
estalkia potretari

eta nire arima zen bertan begiratzen zena

Pigmalion

Zure atzamarrak erbi-txakurra bezala buztinean barrena
nire itzala eskuratzeko: Hau dardaren gozoa!
Landa itsutzen duen tximistargi garbiaren ostean bezala
buztinean forma hartzen du senargaiaren aurpegiak.
Zein izango da ezezagunetik datorren hura?
Hona hemen nire gorputza, eta arima
zure ezpainetatik hegan atera dena.

[neskato hitz-motela naiz berriz]

neskato hitz-motela naiz berriz
gela ilunean, beldur ulertezin
eta mamuz
inguratua

buruz errepikatzen dut
zure izena
mingain trabatuarekin
silaba bakoitza zatituz

kopeta noblea
ukitzen dut herabe

iparrorratzaren
orratz dardartia bezala
iparrera zuzentzen naiz

zure mundua
infinitua, apaindura gutxikoa, idealizatu gabea da

[gaueko tximeleta bat]

gaueko tximeleta bat
baino ez da
hosto zuriaren gainean logaletua

zuk ere
papiro zahar bateko hieroglifiko
izan nahiko zenuke

[nire arima iluna]

nire arima iluna
hondarrean ehortzia
lo dago, lo segitzen du

oi, gaueko
tximeleta argitsua,
itzuriko zara
lore-begitik, beirazko kaxa batean
orratz batek zeharkatutako
momia izatetik?

ile gorri ederreko
neskatoak
lorez josiriko haranera
arrabio bat darama
begietan

erne ostean haziko ote da
ale ezezagun hau,
ze lore jaioko da
haizeak ekarritako hazitik?

itzul zaitez, ene arima,
itzul zaitez nigana

Goiza

Ze samurra bihurtu den
ahotsa: gau osoan
iluntasunean kantari aritu den
euria bezala.

Lasaiki
hegan egiteari ekin dio usoak
aurrealdetik
bere lumek distira egiten dute
eguzki izpien azpian.

Zure ahurrean
paratuko da. Goizak esnatu berri
isiltasuna inposatzen du atzamarrarekin ezpainean
eta irribarre egiten.

[Hareaz estalita dago eskailera]

Hareaz estalita dago eskailera,
ez da inoren lorratzik geratzen.
Dardarka ezkutatuko zinateke, hozmindua
dunen artean babesleku bila,
baina hona ere iritsi da
larrazkena.

Ze tristea
arrimatze hau, zelako mina egiten duen
aurpegia haztatzeak: gazi, ulertezin,
euriz bustia.

Iluntzean
landa elurtuan,
haizearen mende dabilen antzinako belarra
gara,
letra gotikoak bezala
hobiko harlauza batean, irakurtezinak.

[nahiko zenuke]

nahiko zenuke
horma sendo eta leiho-ertz zabaleko
etxe zahar batean bizi
iluntzetan belaunak besarkatuta
eseri ahal izateko

laster ohituko zinateke
etxeko
mamu amultsuetara
eta ilargi argitan
melodia ahazturen bat adituko zenuke

batzuetan kamisoi luzedun
ume ezezagunen bat agertuko zen ortozik
eta zure altzoan hartzeko eskatuko lizuke
eskailerak, norbait gora-behera eta eztulka balebil
bezala
egingo luke kirrinka

aspaldi usteldu ziren
aulkietako bizkarraldeak brodatu zituzten

esku haiek
marguldu egin ziren koloreak
zenbat bero
eta txera marrazki haietan

zeu ere
mamu bat izango zara
etxe zaharrean egunen batean

[agian psikoanalisi sareetan]

agian psikoanalisi sareetan
harri koskorrak, luma beltz bat, buztina,
edo oroilorez betetako
kaxatxo bat aurkituko dituzu

agian kasualitatez aterako duzu
amonak oparitutako
parpailadun soineko beltza (zoragarri geratzen zait,
noiz jantzi ordea?)

dendatxo ilun bat
erdi-soto bat sabairaino lepo
hautsez betetako pianoa
lau urte ere ez dituzu

aita
eta ama
hain gazte oraindik
aurrez aurre eserita

bat-batean atea zabaltzen du

haize-bolada izoztu batek
zu negar eta negar
lo hartu ezinda
lau urtetxo baino ez dituzu
oi, gau gau ongile
utzi jausten oihala oi gau
leun beltz pisutsu,
hautsak zure ilea estaliko du,
amaraunak
zure gorputza bilduko —*crêpe de Chine*—
leiho ostean arrosa txinatar bat zabalduko da

[basoan barrena bidexka zuri]

basoan barrena bidexka zuri
berbera
zuhaitz hostotsuak, uda, eta bueltan
lakua bere ur geldo eta sakonekin

aitaren etxea
galduta itzultzen da
ametsean
errepikatua

birramona, amonak utzi zidatena
eta amak
eman zidan dotea
munduaren beste ertzera joan nintzenean

helaraziko dizut
koadro ia ikusezin hau, marguldua,
oasi ilun hau
ur hau

zuri, ene haurra

[baina nire eskuek ez dute]

baina nire eskuek ez dute
herri txikian
soketan zintzilikatutako arropari darion
bakea aurkitzen

zuri ere ez
zaizu utziko zabaltzen
burdin langa sartzen
patio berdatuan, baratzean
zintzilik dagoen arropa lurrindua kulunkatzen den
lekuan

non zure bila aterako nintzatekeen
geldi eta geldo
udako azken eguna bezala

Emakume iraultzaile zahar baten logela

oi, festetako txirotasuna, festetako tristura

argituta daude
leihoak
kale ia hutsean, bustita
haizeak amorruz astindutako
banderak,
hosto karraskariak
oinpean

atea zabaltzen dit; aurrera,
gaur du
urtebetetzea

korridore luze batetik narama
argi bizi batez
argitutako iraganaren
urrutiko ikuspunturantz

emakume zaharra

zutik dago (adabakiz josiak
bere jertsearen ukondoak)

pianoak
egongela erdia betetzen du
aitaren eta amaren argazkiek, Vilniuseko
intelligentsia zaharraren
eskuizkribu ugariek

paretaren kontra
bizikleta bat: oraindik
paseora ateratzen bada, udetan
Nerisko ur ertzetik

izen maitatuak
bizitza bilakatzen dira
bere ezpainetan—katramilatuak,
zorigaiztoki nahaspilatuak

(eserita ikusten dut emakumea
 bakarrik, logela hutsean,
eskuan daukan kandela itzaltzen du haizeak)

[begi higatuek ezustean harrapatutako]

begi higatuek ezustean harrapatutako
anbar zati baten antzekoa zara, itsas algen artean
paseo luze eta nekatuen ostean
hain handi eta astuna —ia ezin dut sinetsi
benetakoa zarena

ondo garbitu behar zaizu
leundu
argia eta beroa zabal ditzazun

zure edertasun arrotz asaldagarria
piztu

tiradera zabaltzean anbar usaina

inoiz inork ebatsi ezingo digun
objektu baliotsu bakarra zara, oi, iragana

[belardiko bitxiloreak loreontzian]

belardiko bitxiloreak loreontzian

nire amonarenak bezalako begi higatuko
oroilore eskutada bat

bere eskuekin egindako kakorratzezko
mahai-oihalaren gainean, bere harrotasuna

zein izango da lore sorta honek esnarazten duen
tristura mugagabearen arrazoia?

[hondorik gabeko putzu ilunetik]

hondorik gabeko putzu ilunetik
sortzen den oihartzuna zara
ume aurpegi irribarretsu bat
islatzen

[gero eta ilunagoa gaua]

gero eta ilunagoa gaua
izan kontu, faltsuak dira izar hauek
oroitu: iluntzean ez duzu oinez ibili behar kaletik,
ezta basotik ere,
ez hitz egin ezezagunekin,
tentuz jaso telegramak, ez zaitez poztu
orainak eta biharrak dakartenaz, ez onartu
oparirik, jaurti pilulen flaskoak, artaziak, orratzak,
ileko urkilak, erre
gutunak eta inoiz ez
idatzi eguneroko bat

ez dizute pauso bakar bat ere bakarrik ematen
utziko

begiak dauzkazu so
edozein ispilutatik, edozein
aurpegitatik, espaloiko lauza bakoitzetik

entzun egiten dute hormek!

Laterna magikoa

hiru pauso aurrera, hiru pauso atzera
eskutik helduta
hiru pauso iparrera, hiru hegora
buelta eman nire inguruan, nik zure inguruan
dantza zahar bat
dirudi

nonbaiten, urrun, oinaztargiak
trumoiak
argi urdinen dirdira
uztondoan

gauez errepidetik korrika
Lazdijaira bidean gindoazen batean

txekor bat bezain altua zen
zakur beltz izugarri batek
antzeman gintuen eta
isilik igaro zen
bere oinkada erraldoiekin

lurra ukitu gabe

[etxea non]

etxea non
inon ez naizen biziko, buelta bat gehiago
azkena, ze luzea
agurra

adreiluzko etxe bat
Seira ondoan, mamu
etxea

urrutian dirdaika
latorrizko teilatua
berria balitz bezala

haizetik babestua
alde guztietatik

etxe hau eraiki zuen
Ameriketatik itzulitako
gizon batek
lur-neurtzaileak
aspaldi hilak

deika ari naiz, inork ez du zabaltzen
bultza egiten diot ateari
giltzarik gabe dago, itxi gabe
hemen ez da inor bizi

logelak zeharkatzen ditut
ze leuna eguzkiak berotutako lurra
nire oin biluzientzat

norbaitek eskutik helduta eramango banindu bezala
gela erdi hustuetatik

mahai bat, arasa bat hormaren kontra, jabearen
besaulkia,
pare bat aulki, iltze batetik zintzilikatuko artaziak,
egurrezko oheak, armairua, lezka hostozabaleko
kutxa bat

leihoen azpitik
errekaren murmurioa entzuten dut (aspaldi
bota zuten errota)

eskudel oraindik sendoko eskailera, kirrinka egiten du
balkoira daraman ateak
begira:

muinoko zekaleen dantza
basoan
bidexka estu bat

nire pausoak
etxe hutsean
dardararazi egin nau—zerbaitek
kristalaren kontra egin du talka
bele bat (zoritxarra)
edo uso bat (zoriona)

leun itxi dut atea
agur

etxea
non inoiz ez naizen biziko

[jaio zinen]

jaio zinen
herrian
lirioak loratzen dira
leihope bakoitzean

zerbaiti usaina dario—ezin dut ikusi zer den—
ahanzturaren
indar eta samurtasunez
uda da

kaleetan zehar alderrai
bira bat ematen diogu eliza atariari
plazari

ardo beltza dastatu eta leihotik
dakusagu
zure jaiotetxea

ohol eta iltzeekin hesitua
ezingo didazu erakutsi

sarraraz nazazu
atondo freskora, eguzkiz betetako logeletara
non joka segitzen duen
kanpora atera eta hautsi duten pianoak
non umea izaten jarraitzen duzun oraindik

nola maitatuko nukeen etxe hau

buelta bat ematen dugu hilerritik
zure hildako maiteak
aurkezten dizkidazu

antzinako herri osoa

zure neska-laguna

hilobi bakoitzaren gainean
arrosa bat
edo lirio hori bat
uzten dut

eta besarkatu egiten naute
onartu egiten naute
haiena banintz bezala

[hain denbora luzez nabil etxe honen bila]

hain denbora luzez nabil etxe honen bila
arimako begiekin hauteman nahi dudala
laino artetik
eta ezin topatu

txilar landak, eta txilar gehiago, espazio
mugagabe hutsak,
haizea hezurretan sartzen da
baso apalak zeharkatuz

izan behar luke etxe bat
harri grisekoa, teila
griseko teilatuarekin, etxe txiro
eta hotza, putzuko ura ez da
oraindik osasungarria hemen

hilerri txiroaren hiru aldeek
inguratzen dute, leihotik
iluntasunean dirdirka
argi bat ikus daiteke amaren hilobian

sua tximinian
paseo luzeen ostean
atzamar sorgortuak
hatsarekin
berotzen saiatzen zara

hiru Brontë ahizpak
bizi izan diren etxea
Charlotte, Emily, Anne
eta beraien aita klerikoa
herri txiki bateko parrokia

konpondu gabeko errepide kaskarrak
iluntzen ari du, motor baten
burrunba entzuten duzu
dagoeneko heldu izan bazina legez, baina ez,
ez da hemen, ez duzu harengana
iristea inoiz lortuko itxuraz

[ezagutzen dut leku bat]

ezagutzen dut leku bat
oin azpiarekin ukitzean
hondarrak intziri sakon bat ateratzen duena
negarrez balego bezala

batzuetan
beltzez jantzitako emakume bat agertzen da
hainbeste negar egiteagatik begiak hustuta

haizeak hondar artetik darama
hodei baten itzala bailitzan

hor zegoen mundu gerrako
heriotza-zelaia

[zure orduak]

zure orduak,
dagoeneko erdi ahaztuak ur ertz urrunean
udazken arrasto gero eta argiagoekin

hara eta hona alderrai ibiltzea helmugarik,
arrazoirik gabe

gelditzen, batzen
harri koskor busti distiratsu bat
edo maskor bat

ez bazenitu bezala
beti ahots berberak entzungo: itsasoa, haizea,
hegaztiak

zelako poza ematen dizun
noraezean ibiltzeak, bakardade miragarria
ustekabeko altxorra, zuretzako bakar-bakarrik

hondarra zure oinpera itsatsita

errealitatearen
epifania

[kilkerrak abesten, saguak harramazkan]

kilkerrak abesten, saguak harramazkan
uda amaiera da

hiru kolpe
hatz-koskor sendoekin
leihoan

agian haizea baino ez da

nora
eraman nahi nauzu?

zure begietan
hustasuna, lupetza
oi, ilargia

[leihora hurbiltzen zara]

leihora hurbiltzen zara
zerbaitek iratzarri zaitu

etxe aurreko zelaian
ilargi argitan
erbiak noraezean korrika

[kalearen ertzean eserita zegoen]

kalearen ertzean eserita zegoen
margoa zartatua zuen banku hautsi batean

jendea haren aurretik pasatzen zen, umeak korrika,
denda ondoko ume-kotxetxoan haurra negarrez zegoen

traktore-gidariaren antzeko txapel urdin txiki batekin
beste garai bateko gabardina lodi
gomazko bota altuekin

eserita zegoen izozkia barkilloekin janez
beste bi anoa ondoan zain zituela

zaharra, masail iletsuduna
bakar-bakarrik
autobusak denda ondoan gelditzen ziren bitartean
lasai asko eserita jaten zuen izozkia

maiatz bero baten amaiera zen

bere inguruan
zirkulu magiko bat zihoan hazten
isiltasun eta bakardadearen zirkulua

[abandonatutzat emango dugu]

abandonatutzat emango dugu
poetaren hilobia herriko hilerri zaharrean
sastrakaz estalia, ahantzia, horrela behar du izan
ez al da poeta baten hilobia?

baina hara non (nork sinetsiko zukeen?) norbaitek
eskuarearekin harea berdindu eta kandelak eta
urrelili zuri sorta txiki bat utzi dituen

hildako guztien
festarako

izotzak haginkatutako hostoen
usaina

nahiko nuke
JAN CZECZOT poetaren hilobiaz
arduratzen den pertsona ikusi

ziurrenetik atso zaharren bat

ikusmen nekatuko ehulea eta arnasa hartzeko
zailtasunekin
oraindik Jainkoarengan sinesten duena
eta hark ez duela ahaztu
badakiena

[Nemunas ibaiaren ertzetik oinez zebilen]

Nemunas ibaiaren ertzetik oinez zebilen
negu neurrigabeki luzea amaitu ostean
eguzkiak itsututa
desizoztearekin batera agertutako euliaren moduan

eskuetan azkura
oraindik loratu gabeko asunak
osasuna bueltatzen duen udaberri-infusio baterako
biltzen ditudan bitartean

ze freskura, ze atsegina
asunen lurrina, burua argitzen du
kuku ikusezina
zoroki kukuka
aurten lehendabizikoz entzuten dut

bitartean, bera,
hego higatuekin, arropa
zarpail guztiz gastatuarekin,
nire aingeru guardakoa, leiala,

ibaiaren ondoan kukubilko begira dago

geldiro dator ura
arrea
zikina
kutsatua

oi, ibaien aita, Nemunas!

[kontuz egiten dut putz, eta uhertu egiten da]

kontuz egiten dut putz, eta uhertu egiten da
hondoa, ihintzez betetzen da
zure azalera argia, oi, arimaren
ispilu mirarizkoa

zure zirrikiturik ilunenetan
aurkitzen da logela hura —badakit—
non debekatua dudan sartzea, ia ahaztua
giltzez itxia agian?

zer bilatzen dut hainbeste ahaleginekin? zergatik
ematen ditut hainbat buelta zure ametsen
labirintotik
inoiz aurkitu ezinik
babes seguru bat, benetako etxe bat, logela
debekatua?

bat-batean, esku ahurrak umeldu zaizkit, hemen
izango ote da?
beldurra diot atalasea zeharkatzeari

urrez brodatutako belusezko gortina zabaltzeari

non eszena berdina, berdina, beti berdina
errepikatzen den
ulertezin, beldurgarri, dagoeneko ahaztua, urruneko
haurtzaroari dagokiona
ez, ezin dut
ez dut nahi

logela debekatua,
eskuetatik kendutako kutxatxoa
aurkituko ote dut egunen batean
zer dagoen bertan, ze altxor, ze sekretu,
ze amildegi?

oi, nire arimako ispilu iluna!

[nire ispiluan neskato bat]

nire ispiluan neskato bat
kokatu da

ez dakit
nola deitzen den ere

oso serioa, zurbila
gaixotasun luze bat pairatu duten eriondoak
bezalakoa

barre egiten ikasi ez eta
helduen artean hazitako ume bat bezalakoa

edo ezkutuan
eta luzaz negar egin duen baten bat bezalakoa

nolako begirada zurea

hitz bakar bat baino ezagutuko ez bazenu bezala:
adio

[lo zaudela begiratzen zaitut]

lo zaudela begiratzen zaitut
lezka hostozabaleko zure ohean non
hainbeste ume hazi izan ziren

nire lagun onenaren
alaba txikia

zure hatsak
esne eta kamamilazko uhin beroak
etxea blaitzen du osorik

zure loa
hain geldia, isila
helarazten dit

ez ote da aingeru bat
burua okerturik eta sorgin-orratzaren
hego gardenekin zaintzen zaituena?

arinegi zoaz hazten
zure loaldian, gehiegizko presarekin

ez dut ezertan
pentsatzen, besterik gabe begira ari natzaio
ume lokartuari
agian ume batek baino ez luke lortuko
bakeak egin ditzadan
munduarekin

[sartu zinen]

sartu zinen
barrez, txikia,

udako egun batean, orain urteak
nire bizitzan

eta han geratu zinen geldi

arnasa hartu gabe, begiak
mugagabeki zabalik,
zakua bezala begiratzen diozu
panpinari: burua lehendabizi,
bi besoak, gerria, hankak, kaixo esaten dizu

zuretzat
josi dut

bularraren kontra estutzen duzu
isiltasunean, ezohiko argi
distiratsu batek inguratzen zaitu

oi, mirarizko umea
ez zara inoiz izango nirea!

[nork ahoskatu ahalko luke egunen batean]

nork ahoskatu ahalko luke egunen batean
lasai, irribarre batekin:

ene
etxea

[izotz lodi gardenaren gainean etzanda]

izotz lodi gardenaren gainean etzanda
hainbeste biltzen zara zeure baitara
hondorik sakonena arakatzen
non burua biraka hasten zaizun

zer ikusi duzu han, ze mundu?

oxala ahal banu, hainbeste urteren ostean,
egun
berean sartu

argi eta ozen

zure pentsamenduak deszifratzeko

[egur]

egur
besakadarekin batera dakarzu kanpotik
airearen lurrun hotza
elurraren zaporea

ze epel (norbaitek, sartzean, oihukatu du:
hemen bizi da Jainkoa!)

logela osoa bete da
eguzki trinko, urre kolorezko
lorez
begiratzean hazi egiten direla dirudi

erlojuak ordua ematen du

hausten da haria eta amonak
Singer zaharraren orratza albainutzeko eskatzen
dizu
oheko arropa konpontzen ari da

leiho ostetik entzuten da amilotxa

ez dizute
prestatu gabeko ikasgaiek axola
ezta mitoi bustiek ere
kanpora zoaz berriz ere

oraindik ez dakizu
arrats honek
eternitatearen usaina duela

[badirudi
ez duzula entzuten]

badirudi ez duzula entzuten
ezer, zure panpinen
munduan murgildurik, benetako
drama

edo maitagarrien liburuei besarkatuta

eta egia da
ez duzu ezer entzuten

baina hitzak, hitz solteak
agian zentzugabe edo ezezagunak

zartadak bezalako hitzak

elkarrizketa zatiak, inflexio
bakana, ahots altua
edo ezkutuan
esku ahurrarekin lehortutako malko bat

berunaren pisuaz
arimaren sakonean ostatu hartzen dute
ez duzu ulertzen zer den, ezin duzu jakin

pozoia dira beharbada
ur gardeneko kondar hauek

badirudi dena ahaztua dela
eta ez, ez da hala; gaixotasun batek bezala
higatzen zaitu
geldiro, ezezagun, sendaezin

[negar-lantua, baina nor ari da negarrez]

negar-lantua, baina nor ari da negarrez

hondakin tontor horren ondoan
ilargi hotzeko argi ankerraren azpian

bere mundu
puskatuari begira?

[pilotu txano beltza]

pilotu txano beltza
burua hertsiki estutzen, larru
higatua josturetan, gerra hondarra
agian

motorzaleen betaurreko handiak
larru beltzezko eskularruak

haizeak bezala egiten du hegan
potentzia handiko bi argik
iluntasunari erauzitako errepidetik

motorraren zarata burrunbatsua
poz jauziak egiten dituen bihotz bat
sosegua

hegoak
hazi izan balitzaizkio legez

aingeru beltz bat legez
motor gainean
zure bizitzako ilunpeak hegan zeharkatzen
jarraitzen du

zure aita da

[erdi esna entzuten dut]

erdi esna entzuten dut
leiho ostetik nola karraskatzen duen elurrak
urrats bakoitzarekin

umeen ahots ahulak, barreak
txintxarrien txilin-hotsa

ez ote naiz neu izango
eskolarantz bizkorregi doana?

gelditu egin naiz, aitona-amonen
baratzeari so —ze isiltasuna
eguzkia, antzigarra, elurra dirdirka ari da
harribitxia legez

kea mukuru
burutik gora doa
antzigarra leporaino heltzen da
hotzak hatsa mozten du
barealdia bihotzean
izan dadila zuretzat

baratze irreal honen ondoan mugiezin
antzigarrez estalitako
iruditxo ilun hau

ahokada bat haize fresko bezala
aringarri

nigan zerbaitek
bidea ezagutzen du

ume bat bezain sinesbera
gidatzen nau, txirula baten soinua
entzuten dut, ezer
ez da izango

hona hemen zabalik
logela debekatuko atea
urrats bat, beste bat, bat gehiago

hustasuna baino ez
altxor bat aurkitu uste zenuen, umel eta ilun,
urrez eta harribitxiz, eskuz idatzitako liburuz,
musketaz, anbrosiaz, olio lurrunduz, mirraz,
belus biribilkiz, zetaz, brokatuz, Kaxmirko artilez,

piperbeltz, iltze eta kanelaz, azafrai
puruz, intxaur muskatu eta hamaika
estatua zoragarri inoiz ikusigabez
betea

erdigunea da

hainbestetan amestutako labirintoarena
marketeriaz apaindutako egongelako lurrarena
nondik txikimila egindako ispilu baten zatiak batzen
ditudan

bat-batean, zenbat argi!

[arrazoirik gabeko bozkarioa]

arrazoirik gabeko bozkarioa

soilik haize gazia
ke heze usainez
zainak ukitzen

soilik belarra
hesi guztiak apurtzen

soilik oskoletik azaleratzen den
Pazko arrautza

[esku ahurrarekin igurzten duzu]

esku ahurrarekin igurzten duzu
eguneko eguzkia gordetzen duen
enbor zakar lakarra

enborraren azal latzera
hurbiltzen duzu belarria
eta bihotz bizidun bat
sentitzen duzu taupaka, maitale

lehendabiziko bioleta logaletuak
bere begi sakonak zabaltzen ditu
udaberri atzeraezina
hemen zaude jada

[hego-haizearen itzulerak]

hego-haizearen itzulerak
epel, sendo bezain leun
nahi gabe ere malkoak ateratzen ditu

intxaurrondotik
hodei hori lodi bat altxatzean
lore-hautsez likatsu

zure arima
lore-begi puztua bezala
eguzkirantz lehiatzen da
ezin esanezko malenkonia batekin

nola mintzen duen udaberri honek!
haizearen musuei eman zara
ezpainetan arrastoak daude

[errezelak zabaltzearekin batera]

errezelak zabaltzearekin batera
logela ilunean sartzen zara
urrats adiezinekin

lotan dagoenari so

oi, ilargi

[antzigarrez estalitako leihoaren ondoan eserita]

antzigarrez estalitako leihoaren ondoan eserita

burko-azalaren parpailak josiko dituzu kontzentrazio osoz
zeta zurizko hariekin
lore eder askoak brodatzen

hainbeste denbora da, hainbeste noiz ere ez dudan oroitzen
antzarak aditu nituela hegoalderako beraien bidaia luzerako elkartzen

ze geldo erortzen den elurra
hilabete zuriak helduko ziren

soilik atzamarra zulatzen dizun orratzak
oroitaraziko dizu zerbait: lore-begiak,
loreak oihal gainean zabaltzen

zerekin amesten duzu

burua astun nire burkoaren kontra ezartzen
duzunean?

zelaia lumatxa zuriz estalia

nor hartuko du loak
edredoi zuri arinaren pean

harria bezala hondoraturik?

[hotzez dardarka, hainbestetan galdu izanaz nekaturik]

hotzez dardarka, hainbestetan galdu izanaz
nekaturik
zatozte hona, zatozte
kandelen argira iluntasunean
berotu zaitezte

gose izango zarete seguruena
dasta itzazue
basaran gorriminak, indarrak hartu
azken baiekin

goza itzazue
belar apalak
berde zakarrak, mitreak
gau zakar honetan

arima maitatu, ahaztu, abandonatuak

berotu zaitezte

zuek bezalako
zoritxarreko jende behartsuaren
bihotzen epeltasunean

Ilargiaren lorratza

1

urre hautsez zipriztindua, ilun, oso ilun,
une batez pausatu da atseden hartzeko

ez duzu aurkitzen nondik irtengo zinatekeen
hegan korridore estu itsutik

tximeleta hau
bueltatu den arima bat ote da?

hondarrez estalitako eskaileran
jaberik gabeko basa-katuak, buru gainean
kar-kar-kar (ez dakizu ez ote diren
aurretik deskribatutako bele jangarri berberak)

saguzar bat errezelen tolesturetan
buruz behera zintzilik
mugitu gabe dago lo sakonean
duela egun batzuetatik

ze mundutako mezularia zara?

2

ia lokarturik zaudela, norbait
sentitu duzu logelan

sagu bat da
mahai azpitik lasterka

ezin da ikusi

urrats bakoitzean
oroitzapenak datoz: hemen
huntaz eta hartaz hitz egiten genuen, oinez
gindoazen

bidexka hauetatik, izarrak erortzen ziren
eskukadaka

ahoskatutako zenbat “gabon”

hilen itzalek
zurekin segitzen dute bizitzen

begira:

ilargiaren lorratza dirdirka ari da
ur azalean

[festa dago gau honetan, ilbete]

festa dago gau honetan, ilbete
gau honetan, izadi guztia
zelatan, ikusminez

jokoak
zelai gaineko uretan
ehunka urteko zuhaitzen azpian

igelak korroka
irten berria den
ilargiari so gaude

lore-hostoak bata bestearen segidan:
zabalduko balitz bezala
nire bihotza

[ispilu aurrean orrazten ari da]

ispilu aurrean orrazten ari da,
eskua gelditu egiten da zalantzati, orrazia erortzen uzten du

gerturatu gehiago aurpegia, ikuskatu, urrundu berriz gerturatzeko

bai, aurpegia ere ez da berdina dagoeneko

ezta gorputza ere

eta eskuak —zure aspaldiko harrotasun ezkutua:
eskumutur finak, esku ahur luze meheak,
atzamar arinak— oraindik obeditzen dizute
hatz-koskorretako artikulazioen gaixotasun jarauntsia
nozitu arren

aldatzen noa, ez diot uzten aldatzeari
oharkabe

urtaro bakoitzean
nire bizkarreko paisaiarekin batera ispiluan

nire arima, ordea,
berdina da

[begiak ixten ditut]

begiak ixten ditut
bakeak eta isiltasunak besarka nazaten

orduan —badakit— zelai elurtua bezalako
hosto zuri bat
emango didazu

tinta beltza
landatuko duzu aurrean

eta eskuak berak bakarrik
pintzelkada bat
marraztuko du

baina ni ere
paperezko orri zuri
bat naiz

hieroglifikoak
irakurtzen ikasi dut berriz

irribarre egiten duzun bitartean
nire ariman ereiten dituzun horiek

[ia ez naiz hurbildu hesira]

ia ez naiz hurbildu hesira
gauean antzigarrez estalitako
eskaileratik irristatuz
hasten da zure efektu magikoa
eguzkia dirdirka ari da
pinu adar baten gainean, urtutako izotzaren
tantetan
inoiz baino distiratsuago
eta ahots oso baxu batek, oso gogor
herrestan narama, arrastaka

itzarri, bihotza, itzarri, itzarri

[elurra ari du]

elurra ari du
geldiro eta erregularki
goizaldetik
gaua sartu den arte
zure oin biluziak
dira
elurrean dantzan ari direnak
nire begi harrituetan

[erleak burrunbaka ari dira]

erleak burrunbaka ari dira
monje abesbatza batek tenpluan abestuko balu
bezala

eskaileran eserita freskura sentitzen dut
zerbait dirdirka
asunen artean, indioilar baten luma
(hemen, ordea, inoiz ez da indioilarrik izan)

eskura emandako gutun bat balitz bezala
hartzen dut luma, bueltak ematen dizkiot
ezin dut deszifratu

[nola kendu lokatza, hain irmoki itsatsitako]

nola kendu lokatza, hain irmoki itsatsitako
hauts geruza? nola ezabatu
orbain zailak, antzinakoak, ezabaezinak?
nola garbitu estaltzen zaituen gaiztakeria guztia?

(ostegun arrastia dirudi,
ilbete argia, lainoa belardian
entzuten al duzu egurrezko palen kolpekada
erritmikoa
urmael, erreka, laku guztietan?
nor ote dago arropa garbitzen
hain berandu? estal itzazu belarriak)

tolestu eta berriz ere tolestu egiten dut lihozko
atorra
garbia, zuria, baina ez dakit
ezin dut igarri
nola zuritu, nola araztu zu
ene arima

Nor zara?

Bihotz barrenetik ateratako irribarrea duen
emakumearen moduan
bere betertzeko zimurren lotsaizunik gabe
negu honetan beteko dituen
urteak ahalke aitortuz
—gauzak diren bezala dira—
sorbaldak uzkurtu eta barre egiten duzu

horrelakoa zara zu, itzaltzen doan
udazken berantiarreko eguna
oraindik adarretan dauden
pare bat hosto hori busti
parkeko zelaian dagoen elur arrastoa
hodeien artetik datorren eguzkiak oraindik urtu
gabea

hain sinplea dena
eta ezin zure izatea igarri

[begiraiozu: zinez]

begiraiozu: zinez
urrezkoak dira bere eskuak: ahurrak eguzkirantz
jartzean
—ikusten dut, ikusten— dirdirka egiten dute
urrezko hondar ale txikiek
esku geldi, epelak; bekokia
igurzten duzu beraiekin, une batez bermatzen dituzu
eta desagertu egiten da mina, larritasuna
esku hauek berberek
bainatzen dute haurra, garbitzen dute gaixoa,
txukuntzen eta janzten dute hilberria.

[ezin ditut nire begiak zugandik banandu: gau honetan]

ezin ditut nire begiak zugandik banandu: gau honetan
mila aldiz ederrago zaude
iraganean baino, oi, ilargi

lo behar nuke baina eserita jarraitzen dut
landare igokariaren hosto ilunetatik dakusat
zure pausoa zeruko gangatik

zein naiz une honetan
hainbesteko boterea
izan dezazun nigan

zetazko estalki batekin
biltzen duzu nire bizkarra, zeruan
konstelazioak erakusten dizkidazu, haien izenak ahoskatzen dituzu
istorio horiek aditzen egon ninteke luzaz

zein naiz mundua nirea dela

sentitzeko gai izateko, gurutzatzen
eta korapilatzen diren hainbat hariz nahastua
hemen nagoena
izate osoz

[esku ahurrean zizelkatutako]

esku ahurrean zizelkatutako
hieroglifiko
ulertezinak arakatzen
nire barruko isiltasuna dantzut
—trinkoa, sakona, urrezkoa—

ez dakit nola eskertu
jaiotza eta heriotzen
ziklo errepikatuetan
dagoeneko joan diren haiei
haiek guztiak, ikusi gabeak, ezezagunak

ez ote dira beraien bizitzak: zailak,
akatsez beteak, bilaketan beti
bide honetara bultzatzen nautenak?

[aldapatsua, oso altua, sarrera zailekoa]

aldapatsua, oso altua, sarrera zailekoa
eguzkiari begira dagoen mendi hegala

dena urdin, urdin hutsa
intxaurrondopean

nire oinetan bioleta bat
jasotzeko makurtzen naiz

eta aurpegian gainezka egiten dit
lurraren hats epel hezeak

[ahotsaren nota epelak]

ahotsaren nota epelak
neskatoa esnatzen du nigan, uste nuen
aspaldi hil zinela: ez nituen eskuetan izan
zure atzamar izoztuak?

edo kartzelatu egin zintuzten? hainbat urte
logela ilunean, ahaztua, atzemanezina
korridore luzeetan, eskaileran gora eta behera
liburu apalen edo ispiluaren horma
osteko ezkutuko pasabideetan

edo hain ongi ezkutatua
inork ez zintuela aurkitzen
hormetako oihal zintzilikari higatuen ostean,
zirriborroz beteriko orri erauzien artean
egon zinen itxaroten

hainbat urte, eta ia ez zara hazi, bakarrik
utzi zintuzteneko begi berberekin
begiratzen duzu oraindik

neskatoaren bakardadea

ahots epela iristen zaizu, geldiro
zabaltzen dituzu ukabilak, gorantz
altxatzen duzu aurpegi zurbila, federik gabe
entzuten dituzu
inflexio abegikorrak, zuri zuzendutako tonu
jostalaria
horrela hitz egiten zaie haurrei
helduak direla sinetsarazteko (ni ordea
aspaldi egin nintzen heldu)

nire barruko neskatoa
ezustean aurkitu zintudan
eremu guztiak betetzen dituen
ahots horrek ekarri zaitu
izotza eta beira nola urtzen dituen
senti zenezake

zatoz, jolas gaitezen

zu al zara benetan? bakarrik
dantzatzen
abesten duzu, eskuak astintzen

eta zure ile-kordak desegin egiten dira